

**GAZTEAK, AISIALDIA ETA EUSKARA
EUSKALTZAINDIKO JAGON SAILAREN JARDUNALDIAK
BILBON, 2010-XI-19**

1. Atariko gogoetak

Aspaldi honetan zenbait gogoeta egin dugu euskaltzaleok geure artean gaur egungo euskararen erabilerari buruz. Oso kezkatuta bizi gara, inguruan ikusten dugun ardura falta dela eta. Egia esan, euskararen gizarteko erabilera ikusirik, egoerak samina eta sumina sortzen dizkigu barruan. Azken hilabete hauetan, esan bezala, hainbat idazlan irakurri ahal izan ditugu honetaz. Esaterako, oso labur eta ongi gogoratzen digu guztiori Edurne Alegriak (erabili.com: 2010-11-08) kaleratutako idazkian:

“Euskarari buruz egin diren azken ikerketetan zera nabarmentzen da, euskaradunen kopurua emendatu egin dela azken urte hauetan, aldiz euskararen erabilera ez dela zabaldu bein berean eta, gainera, lehen euskara hutsez bizi zitekeen herrietan eta tokietan, orain gaztelera edo frantsesa gailentzen ari direla”. Hitz kezkarriak bezain gordinak, zoritxarrez!

Nik neuk ere, Euskaltzaindian sartzeko ekitaldian Aramaion eginiko nire sarrera-hitzaldian argi plazaratu nahi izan nuen euskararen ezagupen-maila ugaritzeak ez duela, besterik gabe, euskararen erabilpena ugaritzerik ekarri. Erronka gogorre

re egin beharrean gabela. Egin-eginean ere, eguneroko bizi-tzan, zori txarrez, jendearen arteko harremanetan geroago eta toki handiagoa egiten ari garelako inguruko erdare, hots, frantsesari eta gaztelaniari.

Izugarrizko lana egin dugu euskara normalizatuz gaur egun-
go premietarako prestatzen, baita euskarari komunikabideetan,
irakaskuntzan nahiz administrazioan bidea egiten. Hala ere, aha-
leginak ahalegin, kili-kolo ageri zaigu euskara gizarteko harre-
manetan. Esaera laburrez adierazita, ez gara euskaraz bizi. Edo
hobeto esanda, behar bada, ezin gara gaurkoz euskaraz bizi.

Horrek, besteak beste, argi adierazten digu, gutxitzen doala
gure artean euskararen aldeko militantzia eta konpromisoa.
Lehen euskara hutsean bizi ziren hainbat eta hainbat, inguruko
erdal giroak bultzatuta edo, erdara parra-parra ezpainetan ikus-
ten ditugu. Gure hizkuntza indarberritzeko inoiz izan ditugun
baliabide handienak eta teknologia aurreratuenak eskura ditu-
gun une honetan, baliabide izan beharko luketen aurrerabide
guzti horiek oztopo bihurtzen ari zaizkigu, inguruko erdare
gure artean ateak eta leihoak zabaltzea ekarri dutelako.

Mundu zabalerako bideak ireki dizkigun globalizazio-tresna
ugariek -irradi, telebista, internet, eskuko telefono eta hala-
koek- inguruko hizkuntzen indarra hain handia izanik, euskara
itobeharrean jarri digute. Euskaltzaleen artean edonon ari gara
ardura eta kezka sumatzen.

Edurne Alegriak gorago aipaturiko txostenean zenbait gale-
ra jartzen dizkigu aurrez aurre: *“Azken hamarkadetan egin di-
ren abaleginak, ikastolak, euskararen aldeko kanpainak,
arauak,... butsaren burrungoak izan ote dira? Euskararen pa-
tua izango ote da hizkuntza gutxitua izan behar izatea betira-
ko edo kasurik txarreanean desagertzea?”*

Kezka larri hau, baina, ez dugu betiko euskaltzale amorratu
burugogor batzuen bakarrik. Euskaldunon artean sarritan izan
dugu eztabaida-gune azken aldian. Beste hainbeste agertzen

zigan horrek sortzen zion barruko kezka Anjel Lertxundi idazleak oraintsu telebistan egin zioten elkarrizketan. Gazteen artean euskararen erabilerak izan duen atzerakada kontuan izanik, irakaskuntza-metodoak aldatzea ere proposatu zuen, euskara irakasterakoan beraren ahozko erabilerara bultzatzen ardura gehiago jartzea proposatuz.

Irakaskuntzan hainbeste urte egin dituenaren berbak entzutean, barruan behin eta berriro hausnartu eta susmatutako zer-bait hasi zitzaidan kili-kili egiten. Egia esan, teorian, gaur egun hogeita hamar urtetik beherako gazte guztiak edo gehien-gehienak euskaraz mintzatzeko gai izan beharko lukete, ikas-



ketak euskaraz egin dituztelako edota, gutxienez ere, ikasketagaraietan euskara ikasi dutelako. Ez da halakorik ageri, baina, gizarteko eguneroko bizitzan.

Euskarari dagokionez, irakaskuntzan hainbateko porrota edota iruzurra gertatu ote zaigun neure buruari galdetu ondoren, haratago begiratu nahi nuke, arazoaren sustraiak ikasgeletatik kanpo daudela uste baitut. Lehenago, eskola-bizitzan den-dena erdara hutsean izan arren, eskolatik kanpoko bizitza euskaraz egiten genuen, hau da, euskaldun izaten jarraitzen genuen. Zer dela eta? Gizarte euskaldunean bizi ginelako. Orain, eskolako geletan euskara egin arren, geletatik kanpo erdara da komunikatzeko hizkuntza nagusia, bakarra ez esatearren. Hainbatean gizarte erdaldunean bizi garelako. Gaur egun bizimodua bera ere nahasiago dugu, euskaldun-erdaldunen harremanak ere ugariagoak, eta beste zenbait arrazoi ere bai, tartean.

2. Gazteak gure etorkizuna

Gizarteko eremuak oso ugariak ditugunez, oraingo honetan, euskararen etorkizunerako ardatz nagusia izan daitekeen gazteen munduari begiratu nahi diogu. Eta hori, euron esku delako etorkizunaren giltza. Eurok izango direlako etorkizunean gure haurren gurasoak. Eurok sortuko dutelako euskaraz bizi ahal izateko ezinbestekoa izango den familia eta herriko giroa.

Etorkizuna gazteen esku izango dugunez, kezkarik eta egonezinik handiena gazte horiek, itxura batean, euskarari bizkar egiten ari direla ikusteak sortzen digu. Egin-eginean ere, zenbait alorrean, euskararenean ere bai, hain jantzia dugun gazteria euskararen erabileratik aldentzen ari dela ikusteak edo, behinik behin, hala gertatzen ari dela susmatzeak jota uzten gaitu, bizitzan zehar euskararen alde jo eta ke lanean jardun izan dugunok.

Behin baino gehiagotan bururatu zaigu honako galdera hau: ez ote zaigu latinarekin gertatutakoa gertatuko euskararekin ere? Mendeetan zehar irakaskuntzan oinarritzko hizkuntza

izan arren (garai luzean zehar nazioarteko hizkuntza nagusia ere bai) eguneroko bizitzan tokiko mintzairak erabiltzen zirenez, hizketa hila izatera etorri zen. Latin jakin bai, eta, agian, idatzi ere ederki, baina erabili ez.

Gure arteko bazterretan geroago eta nabarmenago den kezka horren adierazgarri dugu, besteak beste, Donostiako Euskararen Udal Patronatuak eta erakunde eta hiriko eragile ugari (berrogeita hamar erakunde eta elkarte baino gehiagok) elkarlanean abenduaren 3an ospatzen den euskararen egunerako eginiko antolaketa. Euskal programazio zabal horren ardatz nagusia gazteak dira. Argi dago lehentasunezko premia ikusi dutela gazteen artean euskararen erabilera bultzatu behar horretan.

Egoera kezkarri hori aztertu nahirik Euskaltzaindiko Jagon Sailak *Unesco Etxearen* laguntzarekin egun osoko gogoeta-jardunaldia antolatu zuen azaroaren 19an Bilbon. Bertan izandako hitzaldi eta elkarrizketen bidez hainbat pertsona gaituren iritziak eta ikuspuntuak jasotzeko sukera izan genuen. Guztiori, jakina, euskal gizarteari arazo larri hau aurkeztu eta irtenbideak bilatzeko urratsak eman nahirik.

Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan burutu zen gogoeta-jardunaldi horren izenburuak berak nahiko argi agertzen dizkigu zeintzuk diren alor honetan uztartu beharrekoak, hots, GAZTEAK, AISIALDIA ETA EUSKARA. (www.Euskaltzaindia.net)

3. Jardunaldien kronika laburra

Euskaltzaindiak *Unesco Etxearekin* lankidetzan antolatutako XV. Jagon Jardunaldi horietan hainbat alor aurkeztu ziren eta eztabaidatu. Programazio oso trinkoa izan genuen. Behar bada egun bakar batean emateko trinkoegia. Ordu erdiko hitzaldiak bi saiotan banatuta eskaini zitzaizkigunez, hemen ere, bi multzotan aurkeztuko dizkizut. Goizeko jarduna, teorikoagoa izan zen, nahiz eta praktikari hertsiki lotua; arratsaldekoa praktikoa eta laburtzeko sailagoa. Horrela:

a) Goizean: lau hitzaldi izan genituen. Lehen txostenean Jone Miren Hernandez andereak *'Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanabia atzo eta gaur'* txostena aurkeztu zigun. Jarraian, Asier Basurto jaunak *'gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa'*. Ondoren, el-karrizketa eta atsedenalditxo baten ostean, Jean Baptiste Coyos eta Erramun Baxok *'Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian'* ikerlanaren aurkezpena egin ziguten. Amaitzeko, Iñaki Arruti jaunak *'Zer egin dezaket nire udalean (nire inguruan) nerabeek aisian eta lagunartean euskara gebiago erabiltzeko?'* itauna mintzagai hartuz zenbait iradokizun eskaini zizkigun.

b.1.) Arratsaldean: gazteen arteko euskararen erabilerari buruzko zenbait lekutasun entzun ahal izan genituen. Lehenengo Josune Zabala eta Maitane Ayerza ikerlariak, Billabonan kokatutako *Mintzola* taldea Tolosan egiten ari den ikerketaren berri eman ziguten, lau urtetan burutzekoa den *'ahozko lantegia'* aurkeztuz. Jarraian, Garazi Labiano andereak, Nafarroako irakaskuntzan izan duen ibillbide pertsonaleko zenbait une gogoratu ondoren, *'Unibertsitateko ikasleen hizkuntza-jarrerak Nafarroan'* aipatu zizkigun, euskarak Nafarroan duen egoera zailaren isla eskainiz. Horren ondoren, interes handiko ikerketa praktikoa bat eskaini ziguten Maialen Arnedo, Ane Badiola eta Leire Gandariaz euskal filologiako ikasleek *'Ahozko euskara formala eta aisialdian erabiltzen dena'* deituriko txostenean, programak ikasleen egoerak kontuan hartuta egin behar direla azpimarratuz. Azkenik, *'Sare sozial birtualak'* izeneko txostenean mundu berri baten aurkezpena egin zigun Eneko Barberena jaunak. Internet bidez sareak gazteen artean hartzen ari diren indarrak jabetzeko zenbait datu eskainiz. (Informazio gehiago nahi izanez gero: idazkaritza@txatxilipurdi.com)

b.2.) Arratsaldeko saio horretan mahai inguru interesgarri bat ere izan genuen. Bertan gazteen iritzia zuzenean jaso nahi izan ziren. Hau da, gazteak eurak hizketan jarri. Bertan jardun izan zuten Kike Amonarriz moderatzailearen esanetara, Aritza



Escandon, Jaime Altuna, Irati Otamendi, Lieerni Garmendia, Ander Jauregi eta Joseba López gazteek. Alor hau planteatzera-koan kontuan izan beharreko hainbat gauza interesgarri eskaini zizkiguten. Geroago eskainiko dizkizuet.

4. Gogoetarako lanik aipagarrienak

Esan bezala, jardunaldietako txostenak hain trinkoak izanik, ezin denak hemen bildu eta gogoetarako eskaini. Nire ustetan interesgarrienak izan zirenak jasotzen saiatuko naiz.

2.1. *'Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanbia atzo eta gaur'* txostena oso interesgarria izan zen. Jone Miren Hernandez andereak antropologia ikerketak abiapuntutzat hartuz eskaini zigun bere ikuspegia. Gazteek gizarte paraleloa, geroago eta pribatuagoa sortzen ari direla gogoratu zigun. Horren adibide aparteko bizitza egiteko gogo hori ahalbidertzeko lonjak eta alokatzea. Bestalde, teknologia berrian bidez beren bizitza osoa antolatzeke gai ikusten omen dituzte buruak.

Aisialdiaren erabilera, oster, bi une desberdinetan gauzatu dela nabarmendu zuen, hots, zenbait faktorek baldintzaturata 'aste barruan' izaten dena, eta askatasun osoz bereziki 'asteburuetan' gauzatzen dena. Guzti hori dela eta oso zaila egiten zaigu gazteek zenbateraino erabiltzen duten euskara zehazki jakitea. Egin-eginean ere hizkuntzaren erabilera nola gauzatzen den jakiteko ezinbestekoa dugulako harremanak norekin, nola eta non gauzatzen diren jakitea.

Arazoa egokiro aztertzekeotan, hainbat gune bereizi beharko ditugula ere esan zigun. Besteak beste: a) gune konpartituak (familia, kirolak...); b) gune monitorizatuak (monitore batek gidatutakoak); c) gune aratuak (espazio publikoa); eta d) berezko guneak (tabernak, diskotekak, lonjak, gatzetxeak...). Hori horrela oso zaila da gazteen aisialdian eragina izatea. Behar bada, egin daiteke esparru gidatuetan.

Gazteak eta hizkuntza aztertzerakoan, nagusiok ditugun irizpideak aldatu behar ditugula ere esan zigun. Horrela, 'ezagutzaz' hitz egin beharrean 'gaitasunaz' egin behar dugula; 'erabilerari' baino gehiago 'praktikari' begiratu behar diogu, hots, zer egiten duten euskararekin. Eta 'motibazioa' aipatzearen ordez 'emozioaz' hitz egin behar dugula. Hizlari honen iritziz garrantzi handikoa da terminoen eremu hori aldatzea, errealitatea hobeki ikusten lagunduko digu eta.

Gazteek, bestalde, gizarteko kezkak berenganatu eta islatzen dituztela ere azpimarratu zuen. Presio handiegia sentitzen

dute, pertsona nagusion kezka eta ardurak beren gain hartuz. Horregatik hizkuntza eta gizartea uztartu beharra dugu, bietan izugarritzko aldaketak izan direlako, eta gazteak maiz bateko zein besteko indarren artean kateatuta aurkitzen direlako.

Euskara irakasteaz gain, sortzen ari diren mundu paralelo horretan euskararen aldeko moldeak bultzatu beharra du, bertan eurek bidelagun direla eta euren emozioen bidetik aurretik tira egingez.

2.2. Oso interesgarria izan zen baita ere, ‘*Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa*’ txostena. Soziolinguistikako datuen arabera gizartearen egoerak zeharo baldintzatzen omen dute egoera. Asier Basurtoren iritzi ‘*gazteen ustez zein hizkuntza erabili hau tu pertsonala da*’; hala ere, hau tu hori egiterakoan, zenbait faktoren eragina izaten dute. Egin dituzten ikerketen arabera, hiru faktore dira gazteengan eragin zuzena dutenak: a) lehen eta behin faktore indibidualak, hots, berak bizi duen bizitzako gunea, sentimenduak eta abar; b) faktore mikrosozialak edo norberaren inguru hurbilekoak (familia, koadrila, lagunak, eskola, lana, bikotea); c) faktore makrosozialak, guztiontzat berdintsuak (komunikabideak, testu-inguru politikoak...). Hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko hartzen duen hau tu, beraz, guzti horren emaitza izango da.

Familia bizitzaren eraginari buruz honakoa zioen: “*Gazteekin, kontuan hartu behar dugu haurtzaroan hizkuntzarekiko sentipen eta bizipen batzuk izan dituztela. Gaztaroan hartzen dituen erabaki guztiak aurreko oinarri horretatik datoz, Beraz, eragina du neurri handi batean, baina gure ikerketaren helburua ez da izan faktore bakoitzak zenbaterainoko eragina duen ikertzea*”. (Informazio gehiago nahi izanez gero: Soziolinguista Klusterra: www.soziolinguistika.org/gazteak; a.basurto@soziolinguistika.org; 943592556).

2.3. Benetan datu interesgarriak eskaini zizkigun, baita ere, Iñaki Arrutik ‘*Zer egin dezaket nire udalean (nire inguruan)*’

nerabeek aisian eta lagunartean euskara gebiago erabiltzeko” txostena aurkeztean. Lehen eta behin gazteen eguneroko bizitza non gauzatzen den adierazi zigun lauki oso egokiak aurkeztuz. Argi utzi zigun gehien jota ere (euskara hutsean jardunez) urteko bizitza-denboraren %15a ere ez duela egiten ikastetxean. Beraz, bere bizitzako tarte oso txikia.

Testuinguru hori kontuan hartuz jokatu beharko da, bada, gazteen euskararen erabilera aztertzerakoan. Eta, jakina, udal-tan gaztetxoentzat programazio bereziak antolatzerakoan. Batez ere garrantzi handia eman zion kirol-jardunetan egiten diren egintzei, aisialdiaren aldirik handiena barne hartzen dutelako. Jardun guzti horiek euskaraz eskaintzea lortu beharko da, aparteko egintzak (barnetegiak eta abar) abian jarri aurretik. Egintza horien ardura hartzen duten enpresei zerbitzua euskaraz eskaintzea eskatu behar zaie. Eta talde egokia dagoenean euskara hutsean gauzatzeko bideak abian jarri. Talde nahasiak direnean ere, euskarari eman behar zaio lehentasuna.

Oso zaila dut hemen pantailan txosten grafiko eta zehaztean eskainitako datuak jasotzea. Oso interesgarria iruditu zitzaidan datu hori (gaztetxoek oso denbora gutxi egiten dutela ikastetxean) beren-beregi aipatzea, batzuetan eskolari garrantzi handiegia ematen diogu eta. Hain zuzen ere, gazteen eguneroko bizitza udalean eta familiar gauzatzen dela kontuan hartzeak konponbideak bilatzeko aukera egokiagoak emango dizkigulako. (informazio zabala eskuratu nahi izanez gero, jo helbide honetara: www.udaltop.com.)

2.4. Mahai-ingurua ere oso interesgarria izan zenez, bertako elkarrizketen laburpenak eskaini nahi dizuet, gazteek beraiek izan zirelako protagonista. Hitzez hitz grabaturik ez dudanez, ahalik eta zehatzen biltzen saiatuko naiz.

1. ¿Zu bizi zaren inguruan euskara dakiten gazteek asko erabiltzen al dute?

-Ezagutza eta erabileraren artean alde handia dago.



- Billbon neskek mutilak baino gehiago.
 - Gasteizen zaharragoek gehiago; denek oso gutxi. Giroa falta da
 - Ordizian, haurrek beti euskaraz;12 urte inguruan erdarara aldatzen dira; orokorrean gaur egun lehen baino gehixeago.
2. Gazteek gai al dira ikastetxean euskara hutsez jarduteko?
- Gai batzuetarako bai eta beste batzuetarako ez.
 - Irakaskuntza gehiegi dago idatziari lotuta.
 - Ahozkoa gehiago landu beharko litzateke.

3. Gazteek non egiten dute euskaraz eta non ez?
- Ama-hizkuntza dutenak etxearen ere bai.
 - Eskolan antolaketaren arabera.
 - Patioan erdara da nagusi, eta kalean antzera.
 - Parrandan euskaraz, eta diskoteketan erdaraz.
 - Herri batzuetan beste batzuetan baino gehiago euskaraz.
4. Euskaraz hitz egiteko gai direnen artean, zergatik darabilte batzuk eta zergatik ez beste batzuk?
- Zein puntutaraino gaitasuna dugun euskaraz edozertaz hitz egiteko zehaztu behar da.
 - Hainbat faktore kontuan hartu behar dira: lagunak, ingurua eta abar.
 - Ohiturak izugarrizko eragina du.
 - Giroak traba asko jartzen ditu.
 - Zeren gainean egiten den berba kontuan hartu behar da.
 - Jasotzen dena gaztelaniaz jasoz gero, errazago erdara erabiltzea.
5. Euskaraz egiterakoan eroso sentitzen zarete?
- Txisteak eta esateko erosoago gaztelaniaz.
 - Hizkuntza ez-formala, euskalkia erabiltzean erosoago.
 - Gasteizen euskalki propio baten falta sentitzen dugu.
 - Gazteen hizkera ez-forma sortu beharra dago.
6. Nola ikusten duzue euskararen presentzia sare soziale-tan?
- Euskarazko kultur eskaintza txikia da (pelikula eta programa gutxi euskaraz).

-Euskal Telebista-1 nagusientzat da, eta Euskal Telebista-3 umeentzat.

-Literatura alorrean ere eskaintza oparagoak eta interesgarriagoak gaztelaniaz.

-Musika alorrean geroago eta aukera handiagoak.

5. Ondorioak

Euskaltzaindiak antolatutako jardunaldi hauek euskaldunontzat gogoetarako bide izan behar dute. Egin-eginean ere, arazo larri baten aurrean bide berriak bilatzera bultzatu behar gaituen hausnarketa egiteko. Orokorrean, hizkuntzaren erabileran ingurumenak duen eragina nabarmendu zen.

Bestalde aisialdiak izugarritzko eragina du gazteen bizitzan, ikasteaz gainera eguneroko bizitza hainbatean halako egintza ludikoetan igarotzen dutelako. Beraz, gure esku dagoen adinean eremu horri arreta handia eman behar diogu.

Guzti horretan familia bizitzak eta udaleko bizitzak duen eragina ere nabarmena denez, gune horiek ere kontuan hartu beharko ditugu euskararen aldeko plangintzak egiterakoan. Hain zuzen ere, gune bi horietatik kanpo nekez bideratu daitekeelako euskararen etorkizuna.

Honetaz, batez ere gazteek hain denbora gutxi egiten dutela ikastetxean gogoan izanik, beste hizkuntza politika bat egitera jo beharko dugu, gazte horiek ikastetxean euskara ikasi ala, erabiltzeko aukerak izan ditzaten.

Guzti honi buruz Zigor Etxeburu Urkizu, Kontseiluko kidearen hitzak erantsi nahi dizkiot, gogoetarako oso interesgarriak direlako. Honela dio

“Norbanako helduon eguneroko bizipen eta barreman gebienak lan-munduari eta aisiaren eremuetan egiten ditugu, gure eguneko denbora-tarte ia osoa ematen baitugu horre-

tan (lana eta lantokia, zerbitzuen eskaintza, aisia, bezeroak). Eta edonork ziurta dezakeenez, Euskal Herriko gizarte-bizitzan gaztelaniak eta frantsesak euskarak baino erabilpen askoz ere handiago dute, euskarak bainbat esparru erabat arrotz izateraino. Era berean, eta bizkuntzen erabilera sozialari loturik, bizkuntza hegemonikoek ez dute euren abiada moteltzen; aitzitik, bizkortu eta bizkortu ari dira, eta gurearen tamainako bizkuntzek egunerokoa dute bizirik irauteko abalegina egin beharra. Horiek hala, eta jakinik harremanak beti bizkuntza-aren batean egiten direla, bizkor ondoriozta daiteke ez dela euskararen egoera normalduko gizarte-bizitza euskaldundu gabe. Euskarak funtzio guztiak berreskuratu behar ditu, euskarak ez baitu etorkizunik izango erabiltzen ez bada.

*(...) Beraz, euskararen erabilera orokortzera iristeko bi erronka nagusiek bete gabe jarraitzen dute: euskaraz bizi abal izatea legez bermatzea eta euskararen ezagutza unibertsala lortzea. Inpase egoeran gaude. Ataka borretatik ateratzeko, zerbitzuen alorra eragin nahi duen **Lehen Hitzetik zerbitzua euskaraz** eragite-ekintza jarri du abian kontseiluak, euskalgintzak abiatutako bideari eutsi eta are indar handiago eman nabirik (...) Euskaldun kontzientziatuok euskaraz bizitzeko jarrera geure egin eta indartuz gero, bizkortu dezakegu eragile sozial eta politikoei euskararekiko jokabidea aktiboak izatea” (Erabili.com.: 2010-09-23)*

Aurreko guzti horri nire Aramaioko sarrera-hitzaldiko atal txo bat erantsi nahi diot, gogoetarako ongi etorriko zaigulakoan. **Erronka berriak** aipatzerakoan honako hauek gogoratu nituen:

“Gaur egun beste erronka batzuei aurre egin beharra ere badugu euskaldunok. Goitik behera aldatu zaigu muga geografikoaren ikuspegia eta eragina. Mundua herri handi bakar bihurtzen ari zaigu. Kokaleku birtual batean bizi garela esan daiteke.

Komunikabide berrien bidez (Telebista, Internet, Eskuko telefono eta abarren bidez) gure etxeko ate-leihoak mundura zabalduta bizi gara. Euskarak inguru berri horrek dakarzkigun eragozpenei aurre egin beharra du.

Izugarria dugu, bestalde, globalizazioak eta teknologia berriek dakarten iraultza ere. Zeharo aldatzen ari da gure ume eta gaztetxoek inguru linguistikoa. Geroago eta zailagoa gertatzen ari da hizkuntzaren transmisioa familietan. Gurasoak geroago eta asti gutxiago dute umekin euskaraz jarduteko. Hizkuntzak erroak sendo jartzeko beharrezkoak dituen inguru euskaldunak desagertzen ari zaizkigu.

Hizkuntza, batez ere ahozko jarduna izanik, eta ondorioz bere bizia eta indarra erabileran egonik, kezka handia sortzen digu zenbait egoera berrik, esaterako, gure ume eta gaztetxoek geroago eta denbora gehiago ordenagailu eta antzerako tresna “mutuen” aurrean egiteak, hizkuntza ezin delako hitz egin gabe bizi. Hitz egiteko erraztasuna galtzeak berehala ekartzen du alde batera uztea. Azken aldian guk egindako aurrerakuntzak ere oso txikiak dira ingurukoak egiten ari direnekin konparatuz. Itolarrian bizi gara, aurrera egin ezinean.

Egoera horrela, ez dugu nahikoa asmo onak edo gogo finak izatea. Euskaraz bizitzea ahalbideratuko digun gizartea behar dugu. Euskaldunoi ez zaigu aitortzen Euskal Herrian euskaraz bizitzeko eskubidea. Bizitzako hainbat unetan eta tokitan erda-



ra erabiltzera behartzen gaituzte. Ez da oraingo egoera larri hau aldatzeko benetako urratsik ematen. Txarrago oraindik, azken aldian, sarriegi Euskal Herrian zehar kontrako egintzak ikusten ari gara.

Eleaniztasunean oinarritutako irakaskuntza dela eta ere, hainbat zalantza eta kezka sortzen zaizkigu, euskarak azken urteotan irakaskuntzan (A eta B ereduetan batez ere) sekulako porrota izan duela ikusi ondoren. Hainbat itaun datozkigu bat-batean burura: nondik aterako da plan berrietarako astia? Oraingoan ere, ez ote da euskara kaltetuko duen eredia auke-ratu? Lehendik txarto eta, beharbada, aurrerantzean oraindik txarrago!

Unerik egokiena edo aproposena genuke, bada, estatuari eta beraren ordezkariari euskararen aldeko diskriminazio positibo-boa eskatzeko, neurri batean, behinik behin, gerra osteko urteetan egindako kalteak konpontzeko

New Yorken egin berri Nazio Batuen Erakundearen jatorrizko herrien batzarrean, euskaldunoi ez zaizkigula hizkuntza-eskubideak aitortu ondoren, “hizkuntza bat desagertzen denean herri bat desagertzen dela” gogorarazten digute. Eta hori esan ostean konpromisoa eskatzen zaigu: “eskubideen aldarrikapena ez da aski; herriek eurek, hizkuntzaren eta kulturaren garapena ahalbideratzeko estrategiak planteatzeko eginbeharrak dauzkate”.

Estrategia egokiak abian jarri beharra aipatzen dute. Horren bila ibili gara azken urte hauetan. Ahalegin handiak egin dira bide egokien bila. Eta, azkenean, honetan ere aurrerantz egitea lortu dugu. Atera berri ditu Kontseiluak (Euskal Herrian euskaraz lanean diharduten berrogeita hamasei erakundeetako ordezkariak osotutako erakundeak) horretarako bide izan daitezkeen bi liburuxka eder: Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen eta Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta.

Beraz, nahi izanez gero, badugu liburuxka horietan ekarpenik eta gogoan hartzekorik ugari.

Euskara gure gizarteko hizkuntza bizia izatea nahi dugunok (Euskaltzaindiak, Kontseiluak, ikastolek, AEKk, banakakook elkar hartuta) badugu oraindik egitekorik gizarte horretako hainbat alorretan, inguruko erdaren ur-emari indartsuei aurre egiteko aldats gora arraunean jo eta ke jardun beharko dugu eta.

Patxi Uribarren Leturiaga